

EUSKARAREN SENTSIBILIZAZIORAKO PILULA



- 01 EUSKALKIAK NAHASTEA
- 02 MUSIKA
- 03 ERABILERA OKERRAK
- 04 ATSOTITZA

EUSKALKIAK NAHASTEA

Zuzena al da euskalki bat baino gehiagoko hitzak nahastea euskara batuan ari garenean? Koherentzia testualak eta lexikalak ez ote dute euskalkiekin txukun antzean jokatzera behartzen? Adibidez:

- **Engoitik** alferrik da eta ez dut deus galdetu **nahi** (zuzen)
- **Horrezkero** alferrik da eta ez dut ezer itaundu **gura** (zuzen)
- **Engoitik** alferrik da eta ez dut ezer galdetu **gura**. (oker)

ERANTZUNA

1. Euskaltzaindiak ez du ezer erabaki horretaz, eta euskaltzaleen iritziak bereiz dabilta.
2. Neurrian eta testuinguruaren jabe izatean dago irtenbidea ziurrenez. Zentzuzkoa dirudi, esaterako, mendebaldeko euskararen idatzitako testu batean, (barik, oster, berba...) ez egokia izatea lapurteran eta nafarreran ohikoak diren hitzak (norat, bortz, izanen, heldu den urtean) eta alderantziz.





‘ZERRAUTSA’

Urte hasiera berriarekin batera etorri da Olaia Inziarteren diska berria. ‘Eman abisua’ kantarekin aurreratu zuen artistak lan berria eta gogotsu jaso dute entzuleek.

Hamalau abestik osatutako lan honetan, soinu organikoak eta elektronikoak uztartu ditu musikari nafarrak, gitarra distortsionatuak, sintetizadore analogikoak eta vocoder-ak erabiliz. Diskoaren aurkezpen kontzertua martxoaren 7an izango da Lesakan. Hortik aurrera, Euskal Herrian zehar ibiliko da oholtzaz oholtza.



ENTZUN
HEMEN!



MUSIKA • MUSIKA • MUSIKA

02



Urtarrilaren 20an ospatzen da San Sebastian eguna, eta data hauetan nahastea sortzen da askotan jaiegunaren izendapenarekin: **San Sebastian eguna, Donostia eguna...**

- Seguruenik, Gipuzkoako hiriburuaren izena dela-eta sortuko da nahaste hori; alegia, leku-izena gaztelaniaz San Sebastián eta euskaraz Donostia delako.
- Euskaraz, Sebastian da santu horren izena, eta, beraz, **San Sebastian eguna** da urtarrilaren 20a, ez ***Donostia eguna**.



ERABILERA OKERRAK:
*DONOSTIA EGUNA

URTARRILA ENKITSU, URTEA DIRUTSU

